



# PROTOKOLO OROKORRA

## 2021/22 IKASTURTEAN IKASTETXEETAN COVID-19ren AURREKO PREBENTZIO NEURRIAK

2022/01/4



**1. SARRERA**

**2. HELBURUA**

**3. OINARRIZKO PREBENTZIO-NEURRIAK**

- A) Harremanak mugatzea.
- B) Prebentzio pertsonaleko neurriak.
- C) Antolaketa-nurriak.
- D) Garbiketa eta aireztapena.
- E) Kasuen kudeaketa.
- F) Ikastetxea antolatzeke beste neurri batzuk.



## 1.- SARRERA

2020-2021 ikasturtea, COVID-19k eragindako alarma-egoerak eta osasun-larrialdiak ez ezik, etengabe aldatzen izan den egoera epidemiologikoak ere baldintzatu zuen, amaigabeak ziruditen igoerak eta inoiz nahikoa ez ziren jaitsierak tarteko, besteak beste.

Testuinguru horretan, ikastetxeen kudeaketa erronka handia izan zen, bai antolamenduaren aldetik, bai irakaskuntzaren aldetik. Zuzendaritza-taldeek, irakasleek eta irakaskuntzaz kanpoko langileek funtsezko rola izan zuten une oro, bai birusaren transmisio komunitario handiko egoeretan, bai transmisio baxuagoko egoeretan, ikasleak eskolara joan ahal izateko eta hezkuntza-eskubidea % 100ean aurrez aurre bete ahal izateko. Irakasle-taldeek era guztietako estrategiak eta baliabideak erabili zituzten hezkuntzaren kalitatea ahalik eta handiena izan zedin, eta familiak eta ikasleak berehala egokitu ziren kontingentzia-planetan proposatutako prebentzio-neurrietara.

Txertoak iristeak eta funtsezko kolektiboentzako txertaketa-kanpaina hasteak, zalantzarik gabe, inflexio-puntua ekarri zuten ikasturtearen amaierari begira. Ondorioz, Aste Santuko oporren osteko "eskolara itzultzea" desberdina izan zen Gabonen osteko itzulerarekin alderatuta; izan ere, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe gehienetan lan egiten duten profesional gehienak txertoaren lehen dosi batekin itzuli baitziren. Prebentzio-neurriak batere lasaitu gabe, baina profesionalen artean askoz ere zalantza edo antsietate gutxiagorekin.

Funtsezko kolektiboen ondoren, adinaren araberako txertaketa-kanpainaren txanda izan zen, aurreko fasean baino erritmo biziagoan gainera, eta, horren ondorioz, 2021-2022 ikasturte-hasieran populazio heldu immunizatuaren ehunekoa oso altua izan da, eta 12 urtetik gorako ikasleen zati batek dosi bat jarrita zuela hasi du kurtsoa.

Aste batzuk geroago, urriaren 4an hain zuzen, dosi bateko txertaketa-estaldura 12 urtetik gorako biztanleriaren % 90,2ra iritsi zen, eta pauta osoa % 88,9ra. Urriaren 5ean, 14 egunetan metatutako intzidentzia tasa 60,64 kasukoa zen 100.000 biztanleko, eta beharrezko joera zeukan.

Intzidentziaren murrizketa-egoera hau ikusita, lehendakariak COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-larrialdiko egoeraren amaiera agindu zuen dekretu bidez<sup>1</sup>, eta osasun-egoeraren kontrolari eta zaintzari buruzko erantzukizuna Osasun Sailari itzuli zion. Osasun sailburuak, bestalde, agindu berri bat argitaratu zuen COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak ziren prebentzio-neurriei buruz<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> [39/2021 Dekretua, urriaren 6koa.](#)

<sup>2</sup> [Agindua, 2021eko urriaren 6koa, Osasun Sailburuarena.](#)



Agindu horretan oinarrituta, COVID-19aren aurkako prebentzio-neurrien protokolo orokor hau ezarri zen EAEko ikastetxeetan.

Hala ere, ikasturteko lehen hiruhilekoa amaitu ondoren, ikusten dugu 2021-2022 ikasturte honen garapena egoera epidemiologikoak baldintzatzen duela berriro, etengabe aldatzen ari baita. COVID-19ak eragindako pandemiaren seigarren olatuaren ondorioz, lehendakariak berriro deklaratu behar izan du osasun-larrialdiko egoera, gure gizarteko esparru guztietan prebentzio-neurriak hartzea areagotu ahal izateko.

Birusaren intzidentzia-tasa altuak, aurrekaririk ez duten mailetan, inolako zalantzarik gabe eragiten die ikastetxeei, eta horietan, hala ere, hezkuntza-jarduera presentziala bermatzeko helburuari eutsi behar diogu. Horregatik, Gabonetako oportunitate itzuli ondoren, indarrean dagoen Protokolo Orokorra zorrotz betetzeko eskatu behar dugu, eta, aldi berean, funtsezko alderdi batzuetan indartu behar dugu, birusaren aldaera berrien kutsakortasun handia dela eta<sup>3</sup>.

Funtsezko alderdi horiek, funtsean, kontaktuak mugatzearekin eta espazioak aireztatzearekin dute zerikusia.

## 2.- HELBURUA

Ikastetxeek hartu beharreko neurrien helburua **hezkuntza-jarduera presentzialaren** garapena bermatzea da, betiere COVID-19 hezkuntza-komunitatean ez zabaltzeko. Beraz, helburua da gure ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea segurtasun- eta osasun-baldintzetan, bai eta ikastetxean lan egiten duten pertsonentzat ere. Ildo horretan, kontuan hartu behar dira, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak garatzen dituen COVID-19ren aurkako laneko arriskuen prebentzio-neurriak.

Protokolo Orokor honen helburua antolaketaren ikuspegitik jarduteko jarraibideak ezartzea da, ikasturte hasieran nahiz ikasturtean zehar gertatzen den edozein egoerari behar bezala erantzuteko, betiere pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatuz.

Horretarako, ikastetxe bakoitzak, Protokolo Orokor honetan ezarritako jarraibideei eta osasun-agintaritzak unean-unean eman ditzakeen aholkuei jarraiki, hauetara egokitu behar du bere jarduera. Horretarako, Ikastetxearen Urteko Planean atal bat ezarriko du Kontingentzia Planarekin. Azken honetan zehaztuko eta jasoko dira, Protokolo Orokor honetatik eratorritzen diren hainbat esparru, prebentzio- eta higiene-neurriak, eta transmisio-egoeran balizko aldaketarik gertatzen denerako jarduerak, Lan Arriskuen

---

<sup>3</sup> Protokolo honen errebisio unean, COVID-19aren transmisio komunitarioa oso altua da. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak informatuko du egoera hori aldatzen denean.



Prebentziorako Zerbitzuak emandako jarraibideen arabera ([COVID-19ren aurkako laneko arriskuen prebentzio-neurriak](#)).

Hala ere, Protokolo hau dinamikoa da, eta osasun-agintariek ezarritako jarraibideen arabera eguneratuko da uneoro. Pandemiaren aurreko arrakasta, 2020-2021 ikasturtean bezala, inplikaturako eragile guztien konpromisoaren eta erantzunkidetasunaren ondorio izango da: zuzendaritza-taldea, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, ikasleak, familiak eta ikastetxearekin modu batean edo bestean harremana duten pertsona guztiak.

### 3.- OINARRIZKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Metatutako ebidentzia zientifikoak erakusten digu SARS-CoV-2 pertsonatik pertsonara transmititu daitekeela hainbat bideetatik. Horietan **nagusia da, pertsona gaixo batek igorritako arnasketa-aerosolak** edo tamaina handiagoko partikulak beste pertsona batengana iristea, ukituz edo goiko nahiz beheko arnasbideen bidez. Sortutako aerosolen kontzentrazioa eta tamaina garatutako jardueraren arabera da: minimoa da arnasa lasai hartzean, eta gero eta handiagoa berriz, hurrenkera honetan, ahapeka hitz-egitean, ozen aritzean, garrasi egitean, abestean, eztul egitean eta jarduera fisiko biziak egitean.

Kutsatzea zeharkako kontaktuaren bidez ere gerta daiteke, gaixoaren arnas jariakinekin kutsatutako esku edo objektuek arnas bideetako mukosekin eta pertsonen konjuntibarekin (begiko mintza) kontaktua izatean.

SARS-CoV-2 hedatzeko arriskua handitu egiten da pertsonen arteko elkarreteragina handiagoa izan eta denbora gehiagoz irauten duen bitartean. Era berean, frogatu da transmisio handiagoa dagoela **distantzia laburretan** (metro bat baino gutxiago), **espazio itxi eta jendetsuetan, aireztapen ona ez dagoenean** eta prebentzio-neurri egokirik ez dagoenean. Jendearekin eta espazio itxietan, pertsonak denbora-tarte luzeagoak igarotzen dituztenean, distantzia metro batetik gorakoa izatea gomendatzen da.

Ikastetxeetan, COVID - 19ren aurreko prebentzioaren, higienaren eta osasunaren sustapenaren oinarrizko printzipioak honako hauetan egituratzen dira:

- A) Kontaktuak mugatzea.
- B) Prebentzio pertsonaleko neurriak.
- C) Antolaketa-neurriak.
- D) Garbiketa eta aireztapena.
- E) Kasuen kudeaketa.
- F) Ikastetxea antolatzeke beste neurri batzuk



Jarraian aipatzen diren neurri guztiak alda daitezke pandemiaren bilakaeraren arabera, eta aurreko ikasturteko protokoloetan jasotako egoeretara itzul daitezke.

#### A.- Kontaktuak mugatzea:

Gorago esan bezala, 2021-2022 ikasturtean erabateko presentzialtasuna bermatuko da euskal hezkuntza-sistema osatzen duten irakaskuntza, maila eta etapa guztietan.

Helduen arteko elkarrekintzetan zorrotz errespetatu behar da 1,2 metroko pertsonen arteko gutxieneko distantzia, maskara erabiltzea barne distantzia edozein dela ere.

Era berean, oro har, gutxienez 1,2 metroko pertsonarteko distantzia mantenduko da ikasleen artean, ikastetxean barrena mugitzen direnean edo gelatik kanpo daudenean.

Ikasgela barruko taldeen antolaketari dagokionez, Burbuila edo Bizikidetza Egonkorreko Taldea (BET) kontzeptua argitzea komeni da: Bizikidetza Egonkorreko Taldeak (BET) tutorearekin batera ikasle kopuru mugatu batek osatutako taldeak dira, ikastetxearen barruan egiten diren jarduera guztietan estankotasuna bermatuz eta beste talde batzuekiko elkarrekintza saihestuz, kontaktu kopurua ahalik eta gehien mugatuz. Trukean, taldearen barruan ez litzateke beharrezkoa izango pertsonen arteko distantzia zorrotz gordetzea, eta, beraz, kideek sozializatu eta elkarren artean joka dezakete, normaltasun handiagoz elkarri eraginez. Idealki, talde bakoitzarekin elkarreragiten duten helduen kopurua minimizatu behar da, funtsezko figura tutorea izanik.

**Ikasgela barruko** taldeen antolamenduari dagokionez, honako hau ezartzen da:

a) **Haur Hezkuntzan**, bai lehen zikloan bai bigarreanean, ikasle-talde egonkorrek osatuko dira eta tutorearekin batera Bizikidetza Egonkorreko Taldeak (BET) edo "burbuila taldeak" osatuko dituzte. Talde horietan, kideek elkarren artean sozializatu eta elkarreragin dezakete, pertsonen arteko distantzia zorrotz mantendu beharrik gabe. Ikasleek eta tutoreek osatutako burbuila talde horiek ez dira beste talde batzuekin harremanetan jarriko, eta ikastetxean egiten diren jarduera guztietan estankotasuna bermatuko da.

Hezkuntza Bereziko ikastetxeek eta Musika-eskoletako adin-tarte horretako taldeek atal honetan ezarritakoaren pareko jokatuko dute.

b) **Lehen Hezkuntzan** Bizikideta Egonkorreko Taldeak (BET) edo burbuilak osatuko dira, Haur Hezkuntzako estankotasun baldintza berberetan, **hau da, ez dira beste talde batzuekin harremanetan jarriko ikastetxean egiten diren jarduera guztietan**. Maskara erabiltzea derrigorrezkoa da, baina ikasleek beren talde/ikasgelan (BET) elkarreragin eta harremanak izan ahalko dituzte. Ikasgela barruan lan-azpitalde egonkorrek sortu ahal izango dira, 4 edo 5 ikaslez osatuak,



haien distantzia-mugarik gabe, baina **azpitalde horiek gutxienez 1,2 metroko distantziari eutsi behar diote (idealki 1,5 metro posiblea den tokietan)**. Aire zabaleko jolas eta jardueretan, Bizikidetza Egonkorreko Talde bereko ikasleek jarduera eta jolasetan elkarreragin eta harremanak izan ahalko dituzte.

BET horiek ez dira beste talde batzuekin harremanetan jarriko, eta ikastetxearen barnealdeko toki itxietan egiten diren jarduera guztietan taldearen estankotasuna bermatuko da.

Musika-kontserbatorio profesionaletako eta Musika-eskoletako adin-tarte horretako taldeek puntu honetan ezarritakoaren pareko jokatu dute.

c) Derrigorrezko eta Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan, Lan-talde Egonkorrak egin ahal izango dira ikasgelan (3 edo 4 ikasleko talde egonkorrak), baina taldekatze horien arteko distantzia 1,2 metrotik gorakoa izan beharko da. Taldekatze horiek egonkorrak izango dira gutxienez 10 egun baino gehiagoko oporraldietara arte, eta, ahal dela, hautazko irakasgai berberak dituzten ikasleek osatuko dituzte.

**Aire zabaleko jolasetan eta jardueretan nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea.** Ez da beharrezkoa izango elikagaiak eta edariak hartzeko, ezta kanpoaldean jarduera fisiko bizia egiten denean ere.

Musika-kontserbatorio profesionaletako eta Musika-eskoletako adin-tarte horretako taldeek puntu honetan ezarritakoaren pareko jokatu dute.

d) Lanbide Heziketa eta Arte Plastiko eta Diseinuko Heziketa Zikloetako praktika-aldietan edo lantokiko prestakuntza-aldietan, erreferentziako lanbide-eremuari dagozkion neurriak hartuko dira.

## B.- Prebentzio pertsonaleko neurriak

- Ikasleei higienari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazteko saioak egiten jarraituko da, gela, ikastetxe eta adin bakoitzera egokituta, neurriak lasaitzea saihesteko.
- Ez da beharrezkoa izango tenperatura hartzea lanaldiaren hasieran. Norberaren erantzukizunari helduz, **etxean bertan tenperatura hartzea gomendatuko da**, ikastetxera joan aurretik.
- Ez dira joango sukarra (>37º)** eta COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak.
- Ez dira ikastetxera joango COVID-19 diagnostikoaren bidez isolatuta dauden ikasleak edo irakasleak; ezta etxean berrogeialdian daudenak ere, sintomak



- dituen edo COVID-19 diagnostikatuta duen pertsona batekin harreman estua izateagatik.
- e. Sarrerak eta irteerak pilotzea saihestuko da, eta, horretarako, antolaketa-neurriak ezarriko dira.
- f. **Maskararen erabilera:**
- Arau orokor gisa, nahitaez erabili beharko dute ikastetxeko langile eta ikasle guztiek espazio guztietan eta une oro, 6 urtetik beherakoek (Haur Hezkuntza), Hezkuntza Bereziko gela egonkorrek eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeek izan ezik.
  - Ikasleen kasuan, maskara higienikoa izango da gutxienez, eta dagokion ziurtagiria eta homologazioa izan beharko ditu.
  - Irakasleen kasuan, maskarak dagokion ziurtagiria eta homologazioa izan beharko ditu, eta dagokion prebentzio-zerbitzuak gomendatutako motakoa izango da.
  - Halaber, eskola-garraioan erabiltzea gomendatzen zaie 6 urtetik beherako ikasleei. Inola ere ezingo da egin autobusen barruan maskara kentzea dakarren jarduerarik (jan edo edatea).
  - Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta ikasleak eserita egon eta 1,2 metroko pertsonen arteko distantzia mantendu.
  - Mugimendua, kantua edo antzekoak eskatzen dituzten irakaskuntza-jardueren kasuan, maskara erabili beharko da eta pertsonen artean dagokion distantzia mantendu beharko da.
  - Ahal den guztietan, ikasleek aire zabaleko espazioetan egingo dute hamaiketakoa, segurtasun-distantziari eutsiz, eta berehala jantziko dute berriro maskara. Salbuespen gisa bakarrik (eguraldia edo espazio-arazoak direla eta) ikasgela barruan jango da, eta, horretarako, ahalik eta aireztapen handiena bermatuko da.
  - Araudian araututako salbuespenen batengatik maskararik erabili ezin duten 6 urtetik gorako ikasleen kasuan, salbuespen hori medikuaren ziurtagiri ofizialaren bidez edo Osakidetzako dagokion medikuaren ziurtagiriarekin egiaztatu beharko da. Kasu horietan prebentzio- eta higiene-neurriak areagotuko dira eta kasu bakoitzari egokitutako konponbideak bilatuko dira.
- g. Eskuetako higieena maiz egingo da (Ikastetxearen sarrera-irteeretan, jolas-ordu aurretik eta ondoren, bazkaldu eta komunera joan ondoren). Ahal de neurrian, eskuen higieena ura eta xaboiarekin egitea gomendatzen da, gel hidroalkoholokoaren aurretik.
- h. Sudurra, begiak eta ahoa ez ukitzea gomendatzen da, eskuek kutsatzea errazten baitute.
- i. Eztul edo doministiku egitean, ez kendu maskara, eta estali ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta.
- j. Mukiak kentzeko erabili eta botatzeko zapiak erabili behar dira, eta erabili ondoren poltsadun paperontzi batera bota, ahal dela estalki eta pedalarrekin, ondoren eskuetako higieena eginez.





### C.- Antolaketa-neurriak

- a. Ikastetxeko espazio komunetan pertsonak elkartzea saihestuko da, pertsonen arteko distantzia eta maskara jantzita mantenduz. Arrisku-eremuak berrikusiko dira, hala nola kafe-makina edo birusa transmititzen lagun dezaketen langileen arteko beste interakzio batzuk.
- b. Oro har, irakasleen eta familien bilera guztiak aurrez aurre egin ahal izango dira, betiere distantzia-, higie-ne eta aireztapen-neurriak gordez.
- c. Guraso Elkarteak ikastetxeetako ohiko gunee-tan bildu ahal izango dira, bai eta egokitzat jotzen dituzten prestakuntza-jarduerak egin ere, kasu guztietan dagozkion prebentzio- eta higie-ne-neurriak betez eta dagozkion Kontingentzia Plana eginez jarduerak hala eskatzen duenean. **Transmisio handiko egoeretan, prestakuntza-jarduera horiek telematikoki edo "on-line" egitea gomendatzen da.**
- d. Aire zabaleko espazioen erabilera sustatuko da mota guztietako jardueretarako, aisialdikoak nahiz hezkuntzakoak.
- e. Ikastetxeetan egiten den edozein kirol-jarduera ahal den guztietan aire zabalean egingo da, eta erakunde antolatzailea izango da jarduera horren prebentzio-planaren arduraduna.

### D.- Garbiketa eta aireztapena:

**1.** Ikastetxeetako kontingentzia-planetan jasotako **higie-ne eta prebentzio-neurri** espezifikoe-kin jarraituko da, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren eta Osasun Sailaren jarraibideen bidetik. Oro har, honako hauek izango dira:

- a. Garbiketa eta desinfekzioa, gutxienez egunean behin, eta indartu egingo da erabilera-intentsitatearen arabera beharrezkoa den gunee-tan, adibidez, komunetan. Komunetan, egunean 2-3 aldiz izango da gutxienez, ohiko erabileraren eta erabiltzaile-kopuruaren arabera.
- b. Arreta berezia jarriko zaie erabilera komuneko gunee-i eta ukipen-gainazal ohikoenei, hala nola ate, mahai, altzari, eskubanda, zoru, telefono, pertxa eta antzeko beste elementu batzuei.
- c. Garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak langileen eremu pribatuetara ere zabalduko dira, hala nola atsedenekuetara, aldageletara, armairuetara, komunetara eta sukaldeetara.
- d. Ikasgeletan, nahikoa izango da garbiketa egunean behin egitea, altzariak barne (mahaiak eta bestelako kontaktu-gainazalak, etab.).
- e. Ikasgeletan, jantokian edo beste gune batzuetan txandak ezartzen badira, ikasleak aldatzen direnean, txanden arteko garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena egingo da.



- f. Era berean, lanerako partekatzen diren postuak garbitu eta desinfektatu egingo dira txanda-aldaketa bakoitzean eta lanaldia amaitzean, eta arreta berezia jarriko zaie altzariei eta manipulatu daitezkeen beste elementu batzuei, batez ere langile batek baino gehiagok erabiltzen dituztenei. Erabilera partekatuko ordenagailu bat erabiltzean, teklatuaren, saguaren eta pantailaren gainazala desinfektatuko da.
- g. Desinfektatzeko, lixiba diluzioa (1:50) erabiliko da, prestatu berria, edo Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratutako biruzida-jarduera duten desinfektatzaileetako edozein. Produktu horiek erabiltzean, beti errespetatuko dira etiketen jarraibideak, eta saihestu egingo da ikasleek produktu horiek ukitu edo erabiltzea.
- h. Garbiketa eta desinfekzio bakoitzaren ondoren, erabilitako materialak eta babes-ekipoak modu seguruan botako dira, eta gero eskuak garbituko dira.
- i. Paperontziak garbi izatea zaindu behar da, garbi eta bertan jasotako materialak ondo bilduta, ustekabeko kontakturik ez izateko.
- j. Lanbide Heziketan eta Araubide Bereziko Irakaskuntzetan praktikak egiteko erabiltzen diren tailerrak, laborategiak eta beste espazio berezi batzuk garbitzeko eta desinfektatzeko, garbiketaren, desinfekzioaren, intsektuen eta ingurumen-osasuneko beste arlo batzuetako produkzio-sektoreko edo zerbitzuak emateko araudi espezifikoak beteko da, bai eta SARS-COV-2 kutsatzea prebenitzeko ezarritako araudi espezifikoak ere.

**2.** Ikastetxeko **espazioen aireztapenari dagokionez**, aerosolen bidez SARS-CoV-2 transmititzeari buruzko ebidentzia zientifiko berriak beharrezkoa egiten du **aireztapenaren garrantzia nabarmentzea** eta horri lotutako gomendio batzuk indartzea. **Honen helburua da airearen kalitatea bermatzea momentu oro eta ikastetxeko espazio guztietan.**

**Ikastetxeetan aerosolengatik SARS-COV-2 transmisio-arriskua murrizteko gida, koronabirusari buruzko informazioa atarian** argitaratua, erreferentziako dokumentua da aireztapen egokia lortzeko eta CO2ko maila monitorizatzeko.

## **E.- Kasuen Kudeaketa.**

### **1. Ikastetxeetako kudeaketa.**

Ikastetxeen kudeaketa orokorrerako, 2020-2021 ikasturtean pandemiaren kudeaketan metatutako esperientzia da informazio-iturri nagusia. Hala ere, puntu honi dagozkion funtsezko alderdiak gogoraraziko ditugu:

1. Ikastetxe bakoitzean erreferentziatzeko arduradun bat izendatuko da COVID-19rekin lotutako gaietarako. Era berean, ESI bakoitzean erreferentziatzeko pertsona bat izango da dagozkion ikastetxeekin komunikatzeko.



2. Halaber, gomendatzen da etengabeko harremana izatea ikastetxearen eta hezkuntza-administrazioaren artean, Hezkuntzako lurralde-ordezkararen eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren bidez, **Hezkuntza Saileko Jarraipen Batzorde Nagusiaren** koordinatzaile gisa, egoeren berri emateko, zalantzak argitzeko eta jarduerak koordinatzeko.
3. **Kontaktuak azkar eta errazago arakatu ahal izateko** eta azterketa eta jarduera errazteko, Zaintza- eta Miaketa-Sarearekin lankidetzan jardungo da, eta honako informazio hau jasoko da, ESletako erreferenteekin eta Zaintza-Sarearekin adostutako formatuan:
  - Bizikidetzat talde egonkor bakoitzeko ikasleen zerrenda.
  - Gela, tailer edo laborategi bakoitzeko ikasleen zerrenda, bertan duten kokalekua edo non esertzen diren (Bigarren Hezkuntzatik aurrera), egiten diren jardueren arriskuaren balorazioa (kontaktu edo hurbiltasun handiagoa duten tailer edo praktiketan parte hartzea), eta haien harremanetarako telefonoak (mugikorra) eta posta elektronikoa, azkar jarduteko, eta hartu beharreko erabakia erraztuko duen informazio guztia. Horretarako, ikasleei eta haien familiei buruzko datuak eguneratu behar dira matrikula-aplikazioan (Ikasgunea).
  - Jantoki-txandako ikasleen zerrenda, eta, ahal bada, kokapena eta eserlekuak ezagutzea, beti leku berean egon daitezen saiatur.
  - Autobus berean garraiatu diren ikasleen zerrenda eta zein lekutan esertzen diren.
  - Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen badira, taldeetan dauden ikasleen zerrenda.

Informazio hori kudeatzeko, eta kasu bat agertzen denean kontaktuak ahalik eta lasterren aztertzeke, ikastetxeko zuzendaritzaren, COVID arduradunaren, autobusen arduradunen eta jantokiko arduradunen arteko koordinazioa behar da, jasotako informazioa datu-base batean izanik.

Halaber, Zaintza eta Arakatzeko Sarearekin lankidetzan jardungo da, kasuen eta kontaktuen familiei informazioa eta jarraitu beharreko jarraibideak emateko, bai eta baheketak egiteko ere, Zaintza eta Arakatzeko Sareak hala egitea eskatuko balu.

**Ikastetxeko langileek uneoro zaindu beharko dute susmagarriak edo baieztatuak diren kasuen nortasunaren eta datuen tratamendu konfidentziala.**

## 2. kasuen kudeaketa



Aurreko puntuan esan bezala, eskarmentua metatu dugun arren, COVID kasu susmagarri edo positiboen aurrean jarraitu beharreko urratsak gogoratzea komeni da:

**Ez dute ikastetxera joan behar COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak**, izan ikasle, irakasle edo bestelako langileak, ez eta COVID-19ren diagnostikoagatik isolatuta daudenek edo etxeko berrogeialdian daudenek ere. **Kasu hauetan, [proba diagnostikoa eskatzeko berariazko inprimakia \(PDIA\)](#) beteko dute etxetik, Osasun Sailaren webgunean eskuragarri dagoena, eta, ondoren, hitzordua jasoko dute SMS bidez, isolamendu-jarraibideekin batera. Baliabide telematikoa erabili ezin dituzten familiek soilik deituko dute osasun-zentrorra susmoaren berri emateko eta PDIA bat eskatzeko.**

### 1. Ikastetxean sintomatologia agertuz gero:

IKASTETXEAN COVID-19rekin bateragarria den sintomatologia duten pertsona guztiek aurrez aurreikusitako jarduera-protokolo bat jarraituko dute:

- a. Horretarako berariaz prestatutako isolamendu-gela batera joango dira (maskara jantzita). Gela horrek higiene- eta aireztapen-neurri egokiak izango ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. Halaber, IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI abisatuko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuko arlo medikoari jakinaraziko dio.
- b. Ikaslea bada, lagun egiten dion pertsonak distantzia-neurriak gordeko ditu eta maskara kirurgikoa erabiliko du. Artatzen duen pertsonak FFP2 maskara erabiliko du.
- c. Ikastetxeko zuzendaritza edo COVID arduraduna familiarekin harremanetan jarriko dira, ikaslea etxera eramateko.
- d. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da argibideak jarraitzeko.
- e. Hezkuntza Saileko langilea bada, isolatu egingo da (maskara kirurgikoarekin), eta etxera joango da zentroko zuzendaritzari jakinarazi ondoren. Azken hau Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin harremanetan jarriko da berehala.
- f. Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko zuzendaritzari, dagokion Prebentzio Zerbitzuari eta Hezkuntzako Prebentzio Zerbitzuari jakinaraziko die, eta hauen jarraibideak beteko dira.
- g. Eraginpeko pertsona **kasu susmagarritzat** joko da, eta **etxean isolatuta** egon beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte, Osasun Sailaren [COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan](#) adierazitakoaren arabera.



## 2. Kasua konfirmatuko balitz:

Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen gurasoek edo legezko tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari.

Ikasleen artean baieztatutako kasu positiboan **kudeaketa** ikastetxeko **Zuzendaritzak koordinatuko du, COVID arduradunarekin eta dagokion ESiko erreferentziako pertsonarekin** batera. Azken horiek, Osasun Publikoarekin koordinatuta, ikastetxeari adieraziko dizkiote **jarraitu beharreko jarraibideak**.

Ikastetxeek, eta, bereziki, bertako COVID arduradunek, ikastetxearen egoera identifikatzen eta jarraipena egiten lagunduko eta parte hartuko dute, une horretan indarrean dauden Osasun Sailak ezarritako irizpideen arabera.

Ikastetxean praktika-modulua (practicum deritzona) egiten ari diren unibertsitate-ikasleen kudeaketa ikastetxeko ikasleen kudeaketaren antzekoa izango da, aurreko paragrafoetan deskribatutakoaren arabera.

Ikastetxean lan egiten duten langileen esposizioaren balorazioa kasu bakoitzaren arriskuaren ebaluazio espezifikoen arabera egingo da, SARS-COV-2reko esposizioaren aurrean Lan Arriskuen Prebentzio-zerbitzueterako jarduketa-prozeduran jasotakoaren arabera.

Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak, Osasun Publikoarekin koordinatuta, balioetsiko du irakasle eta ikastetxeko langileen egoera, hartutako prebentzio-neurrien egokitzapenean eta jarraipenean oinarrituta.

Gurasoei informazio-oharrak prestatuko zaizkie, eta familiei informazio egokia emango zaie **berrogeialdiko, eskuen higieneko eta arnas higieneko neurriak** betetzeko, bai eta COVID-19rekin bateragarriak diren **sintomak garaiz identifikatzeko** zantzuak ere.

## 3. Agerraldietan nola jardun:

Agerraldi gisa honako hau definitzen da: ikastetxean lotura epidemiologikoa duten, edo ikasgela batean foku ezagunik ez duten, hiru kasu. Osasun Sailaren/Osakidetzaren zerbitzuek adierazitako kontrol-jarduera espezifikoei jarraituko zaie.

Irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, eta prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotzuko dira hezkuntza-etapetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa).

Kontrolik gabeko transmisioaren testuinguruko agerraldiak: baldin eta uste bada kontrolatu gabeko transmisio bat gertatzen ari dela ikastetxean, lurralde jakin batean adin-segmenturako espero zena baino kopuru handiagoarekin, Osasun Sailaren/Osakidetzaren zerbitzuek arriskuaren eta neurrien beharrezko eskalatzearen ebaluazioa egingo dute.



## F.- Ikastetxea antolatzeko beste neurri batzuk

Hartutako esperientziatik abiatuta, prebentzio-neurri orokor batzuk hartu behar dira, aurreko puntuetan finkatutako irizpideetan, osasun-agintaritzak helarazitako edo helaraz ditzakeen irizpideetan eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruz indarrean dauden dekretuetan ezarritakoetan oinarrituta.

### 1.Eskola-garraioa

["Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko"](#) dokumentuan jasotakoa aplikatuko da.

Era berean, ikasleek eserleku finkoak izango dituzte autobusean; elkarren hurbileko jarleketan eseriko dira talde egonkor batekoak direnak; eta autobus bakoitzean garraiatzen diren haurren zerrenda izan beharko da, bertan betetzen duten lekua zehaztuz.

6 urtetik gorako ikasle guztiek eta gainerako langileek maskara erabiliko dute uneoro. 6 urtetik beherako ikasleentzat ez da derrigorrezkoa maskara erabiltzea, baina, ahal denean, adin horretatik behera ere erabiltzea gomendatzen da.

### 2.Eskolako jantokia

Jantoki zerbitzuan, "Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko" dokumentuan ezarritako neurriak errespetatuko dira, bai eta berariazko beste dokumentu honetakoak ere: [Eskola-jantokietan Covid-19ri aurre egiteko aplikatu beharreko prebentzio-neurriak](#).

### 3.Eskolaz kanpoko jarduerak

Eskolaz kanpoko jarduerak egin ahal izango dira baldin eta ezarritako protokoloak betetzen badira eta Kontingentzia Planean sartuta badaude –bai ikastetxekoa, bai antolatzen duen erakundearena-, eta hezkuntza-etapa bakoitzerako ezarritako prebentzio-neurriak errespetatzen badira taldekatzeari, distantziari, higienerari, aireztapenari eta maskararen erabilerari dagokienez.

Eskolaz kanpoko jarduerak ikastetxetik kanpoko erakunde batek antolatzen dituenean (Eskola Kirola kasu), beren protokoloa eta Kontingentzia Plana garatuko dituzte.



**Eskola-kirola**, ahal dela, kanpoalde edo barrualde oso aireztatueta egingo da. Intzidentzia altuko edo oso altuko<sup>4</sup> egoeran ez da taldeen arteko lehiaketarik egingo, eta entrenamenduak bakarrik mantenduko dira.

Oro har, dagozkien protokoloak egiteko, honako neurri orokor hauek hartuko dira kontuan:

#### **Kontaktuak murriztea eskolaz kanpoko jardueretan:**

- Eskolaz kanpoko Jarduerak egiterakoan, Bizikidetza Egonkorreko Taldeak ahal den neurrian mantentzea gomendatzen da. Talde desberdinetako ikasleak nahastuz gero, aire zabaleko jardueretan eta maila bereko ikasleetan egitea gomendatzen da.  
**Intzidentzia altuko edo oso altuko egoeran, ez dira Bizikidetza Talde Egonkor desberdineko ikasleak nahastuko.**
- Aukera ematen duten jardueretan, 1,2 metroko segurtasun-distantzia mantenduko da jardueran parte hartzen dutenen artean.
- Jarduera horien sarrera eta irteera mailakatuko dira, beharrezkoak ez diren kontaktuak saihesteko eta sarbideetan masifikazioa saihesteko, batez ere aldi berean talde desberdinak badaude.
- Gosaria edo merienda antolatzen bada, ahal dela, aire zabalean egingo da, Bizikidetza Egonkorreko Taldearen arabera. Barruan bada, aireztapen egokia bermatuko da uneoro.  
**Intzidentzia altuko edo oso altuko egoeran, ez dira horrelako jarduerak antolatuko ikastetxeetan.**
- Eskolaz kanpoko jarduera egiteko behar diren objektuak parteka daitezke (baloiak, xake-fitxak, zintak, etab.), jarduera egin aurretik eta ondoren eskuetako higieena eginez, eta materialak garbituz talde-aldaketen artean.

#### **Prebentzio pertsonaleko eta aireztapeneko neurriak jardueraren arabera:**

- Aire zabaleko jarduerak lehenetsiko dira. Lehenetsuna emango zaio aire zabalean ariketa fisiko bizia egiteari.
- Horrelako jarduerak egiten dituzten langileei dagokienez, ikastetxeetako langileei aplikatzen zaizkien babes-neurri berak aplikatuko dira, eta egokitu egingo dira haur-hezkuntzako edo hezkuntza bereziko ikasleak dituzten taldeak badira.
- Ahotsaren, kantuaren eta haize-instrumentuen eskola praktikoetan, aerosolen bidez transmititzeko gaitasun handiagoa dutenez, pertsonen arteko distantzia bermatuko da, eskolak aire zabalean egingo dira ahal den guztietan, eta

<sup>4</sup> Protokolo honen errebisio uean, COVID-19 aren transmisio komunitarioa oso altua da. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak informatuko du egoera hori aldatzen denean.



aireztapena maximizatuko da barnealdean egiten badira. Maskara une oro ondo kokatuta mantenduko da, jarduera bateraezinetan izan ezik, haize-instrumentuak kasu; kasu horietan, pertsonen arteko distantzia 1,5 m-koa izango da gutxienez.

### Zaintza

- Jardueretan parte hartzen dutenen erregistro bat egingo da, COVID-19 kasuaren aurrean kontaktuak aztertu ahal izateko.

Ikasleek gaua igarotzea eskatzen duten eskolaz kanpoko jarduerari eta jarduera osagarriei dagokienez, establezimendu bakoitzak eskatzen duen protokoloa beteko da. Halaber, Barnetegietan, haien titulartasuna edozein dela ere, dokumentu honen eranskina den *Barnetegietako Protokoloari* jarraituko zaio.

Zentroetako intzidentzia aztertzen jarraituko da eta egoera bakoitzari egokituko dira hemen proposatutako neurriak, Osasun Sailaren gomendioei jarraituz.